



***EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
IJITO HERRIAREN ERABATEKO
SUSTAPENERAKO ETA PARTAIDETZA
SOZIALERAKO KONTSEILUA***

2005. URTEKO JARDUNEN MEMORIA

***Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako
eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluaren 2006ko martxoaren 20ko
osoko bilkuran aurkeztua***

AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
I. 2005. URTEKO KONTSEILUAREN JARDUERA	
a) Kontseiluaren Osoko Bilkura	4
b) Batzorde Iraunkorra.....	4
c) Lan Batzordeak	5
▪ Kultura, Partaidetza Soziala eta Elkarbizitza Batzordea.....	5
▪ Ijito Batzordea	6
▪ Osasun Batzordea.....	7
▪ Etxebizitza Batzordea.....	7
II. KONTSEILUAREN BESTE ZENBAIT JARDUN	
▪ <i>“Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Jardunaldiak”</i>	9
▪ EAEn Ijito Herriaren Eguna instituzionalizatzea	11
▪ EAEn Ijito Herriaren egoerari buruzko azterlana	11
▪ <i>ROMAIn</i> proiektua	12
▪ <i>Koheslan</i> Ikerketa Taldea/Proiektua (EHU).....	13
III. BESTELAKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA	
▪ Ijito Herriaren Estatuko Kontseilua	15
IV. KONTSEILUAREN IDAZKARITZA TEKNIKOA	
▪ Kontseiluari laguntzea	16
▪ Planaren jarraipena	16
▪ Informazioa kudeatzea	17
▪ Beste zenbait ekintza	18
▪ Hobetzeko helburuak.....	18
ERANSKINAK	18

SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua, aurrerantzean *Kontseilua*, abiarazi zenetik bi urte igaro dira; 289/2003 Dekretuaren bitartez sortu eta arautu zen *Kontseilua*, eta 2004ko otsailaren 23ko osoko bilkuran eratu zen formalki.

Dekretu horren 7.4. artikuluan xedaturikoari jarraiki, kontseilukideen karguaren iraupena hiru urtekoa izango da; hortaz, 2006. urte hasi berri hau amaitzen denean kideak berriz hautatu edo batzuk ordezkatu beharko dira, gutxienez Foru Aldundien eta ijito-elkarteen eta ijitoen aldeko elkarten ordezkariak; dena den, 2005eko apirilean izandako hauteskunde autonomikoen ondorioz sortutako Jaurlaritzaren osaera berriak eraginda, izan ziren aldaketa guztien berri eman zuten Eusko Jaurlaritzaren Saitetatik, eta Emakundetik ere beste horrenbeste egin zuten, erakunde horretako zuzendaritzan izandako aldaketaren ondorioz.

Urtean zehar, Kontseiluaren funtzionamenduan modu batean edo bestean eragin duten hainbat gorabehera izan dira. Hasteko, eta aurrerago azalduko dugunez, kideen borondateaz kanpoko arrazoiak direla eta, Kontseilua arautzen duen 289/2003 Dekretuan aurreikusitako bi osoko bilkuretatik bakarra egin da. Horretaz gain, lehen esan bezala, Eusko Jaurlaritzaren Saitetan izandako aldaketak ere aipatu behar dira, izan ere, Kontseilua osatzen duten hainbat kidek oraindik ez baitute ezagutzen, praktikan, Kontseiluaren funtzionamendua. Bukatzeko, Batzorde Iraunkorrek ez du bilerarik egin.

Balantzaren beste aldean, Lan Batzordeak martxan jarri direla aipatu behar dugu, zenbait kasutan Batzorde Iraunkorrek bultzatuta, eta beste batean, Osasun Sailak eskatuta.

Halaber, Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluarekin eta Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Planarekin —aurrerantzean *Plana*— loturiko eragile ugari interesatzen zaien, eragiten dieten eta/edo horiek tartean sartzen dituzten zenbait jardun abiarazi dira, eta jardun horiek gauzatzeak, ziurrenik, Kontseiluaren eta Planaren funtzionamenduan eragina izango du.

Datozen orrialdeetan, horren guztiaren inguruko informazio esanguratsuena azalduko dugu. Ijito Komunitatearen erabateko sustapenarekin, eta haien kulturaren defentsarekin eta sustapenarekin konprometitutako alderdi guztiek 2005ean garatutako lana agertzeko dokumentu hau lagungarri izango delakoan gaude, betiere Kontseilua arautzen duen Dekretuan aipatzen den bizikidetzaren harmonikoa lortzeko gizartean.

I. 2005. URTEKO KONTSEILUAREN JARDUERA

a) Kontseiluaren Osoko Bilkura

2005. urtean, Kontseiluaren Osoko Bilkurak bilera bakarra egin du, martxoaren 23an Bilbon. Bilera horretan, besteak beste, Euskal Kontseiluaren eta Euskal Planaren 2004ko Memoria aurkeztu zen.

Planaren 2005erako Jardunen Urteko Programari buruzko txostena ere onartu zen, formatuaren aldetik zenbait zuzenketa, eta Planaren garapenarekin loturiko eragileek planifikatutako ekintza guztiak —berriak nahiz zaharrak— jasotzeko proposamena sartuta, baina etorkizuneko txostenetarako kontuan izango dugu ekintzak identifikatzea, ekintza berriak diren edo lehenagotik garatzen ari diren ekintzak diren arabera. Era berean, erakundeek aurreikusitako ekintza guzti-guztiak planifikatu beharko direla zehaztu zen, finantziazioa bermatu gabe izan arren.

Osoko Bilkura horretan beste hainbat erabaki interesgarri hartu ziren, hala nola: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren web-orria Kontseiluaren eta Planaren informazioa bideratzeko tresnatzat baliatzea; Batzorde Iraunkorrek proposaturiko lan-batzordeen sorrera eta osaera berrestea; Euskadin, azaroaren 16a Ijito Herriaren Eguna izateko proposamena onartzea; eta Kontseiluaren irudi korporatiboaren elementuetan romani hizkuntza bermatzea.

Azkenik, Osoko Bilkura horretan honako hau eskatu zen: Kontseiluko presidentek Ijito Herriaren kontrako diskriminazio-ekintzei erantzutea eta Kontseilua osatzen duten eragileetako edozeinek ezagututako ekintzak Idazkaritza Teknikoak bideratzea.

289/2003 Dekretuaren arabera, Kontseiluaren bigarren osoko bilkura egitea aurreikusia zegoen, hasieran behintzat azaroaren 28an. Hala ere, Kontseilukideen borondateaz kanpoko egoeren eraginez, deialdia bertan behera geratu zen. Abenduan eta urtarrilean deialdia egitea oso zaila zela kontuan izanda, eta otsailan edo martxoan, 2005eko Planaren Jarraipeneko Txostena eta 2006ko Jardunen Urteko Plana onartzeko, beste osoko bilkura bat egin beharko zela aurreikusita, Osoko Bilkuraren deialdia ordura arte atzeratzea erabaki zen.

b) Batzorde Iraunkorra

Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra 2004ko azaroaren 22an bildu zen. 2005ean ezin izan zen bilerarik egin, hainbat arrazoik eraginda. Lehenik, 2004ko apirilean izandako hauteskunde autonomikoen ostean Eusko Jaurlaritzaren zenbait Sail eraldatu zirenean, Plana osatzeko prozesuan parte hartu zuten zenbait lagunek, eta halaber, Batzorde Iraunkorreko kide zirenek, kargua utzi behar izan zuten; beraz, Batzordearen osaera eguneratu behar da.

Horrekin batera, honako hau ere aipatu behar dugu: Kontseiluaren aurreko osoko bilkuretan aurkeztutako zenbait proposamenen inguruan Osoko Bilkurak iritzia agertu behar du, hain zuzen ere, Foru Aldundien ordezkariak bi izatetik bat izatera igarotzeko proposamenaren inguruan; izan ere, horrela, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak sartzeko aukera izango baitu, Foru Aldundien ordezkariak urtero txandakatzea ahalbidetuko baita, eta ijitoen aldeko elkartearen ordezkariak eguneratuko baita.

Gainera, 289/2003 Dekretuaren 14. artikuluan Batzorde Iraunkorrari esleitutako eginkizunak kontuan izanik; Lan Batzordeek egiten duten lana autonomotzat —modu erlatiboan— hartuta; eta, gizarte-erakundeei dagokienez, Lan Batzordeetan, Batzorde Iraunkorrean eta Osoko Bilkuran duten ordezkariak bera denez, Batzorde Iraunkorraren zubi- eta lotura-eginkizuna alde batera geratzen da.

Batzordearen osaera eguneratzeko eta eginkizunak berriz aztertzeko, 2005eko azaroaren 28rako deitutako Osoko Bilkuran zegoen aurreikusita gai horiei heltzea. Baina azkenean, Osoko Bilkura hori bildu ez zenez, bi gai horiek hurrengo Bilkuran ebazteko daude oraindik.

c) Lan Batzordeak

289/2003 Dekretuari jarraiki, Kontseilua operatibo izateko sortu da; horretarako, Batzorde Iraunkorrek bultzatuta, Lan Batzordeak sortzea aurreikusten du, Planean sartutako gaikako eremuen inguruan.

2004ko azaroan Batzorde Iraunkorrek proposatuta sortutako bi Batzordeei honako hauek gehitu zitzaizkien: lehendik bazen Ijito Batzordea, hau da, Ijito-elkartearen Batzordea; eta Osasunaren eremuko Batzordea, Planean aurreikusitako jardunak gehiago zehazteko eskaerari aurre egiteko sortua.

• Kultura, Partaidetza Soziala eta Elkarbizitza Batzordea

Kultura, Partaidetza Soziala eta Elkarbizitza Batzordeak sei bilera egin ditu guztira 2005. urtean, guztiak ere Donostian. Lehenengo bileran, Planean Kontseiluari esleitzen zaizkion Kulturaren, Partaidetza Sozialaren eta Elkarbizitzaren, eta Hezkuntzaren eremuko jardunak garatzen laguntzeko proposamen zehatzak egitea helburu nagusitzat hartzea erabaki zen, baita honako hau ere: Planaren berri, eta horrekin loturiko azterlanen eta proposamenen berri emateko webgunea sortzeari dagokionez (3.4.3.2. jarduna), webgune horretan emango den informazioa ez dela izango EAEko Ijito Komunitateari buruzkoa soilik.

Batzuetan, Batzordeak Ijito Batzordeari kontsulta egin dio, edo bestela, haren esku utzi du zenbait jardun gauzatzeko moduaren gaineko erabakia. Esate baterako, Euskal Autonomia Erkidegoan Ijito Herriaren Eguna ezartzeko eta arautzeko erabakia, edo ijito-komunitateari zuzendutako informazio-kanpaina bat egitea, Kontseilua eta Plana ezagutarazteko, eta euren helburuen eta jardunen berri emateko.

2005ean Batzordeak garatutako jardun gehienak “Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Jardunaldiak” diseinatzeko izan dira (aurrerago emango dugu Jardunaldien berri). Ezin dugu aipatu gabe utzi beste hainbat jardunen definizioan ere aurrerapenak izan direla, batik bat, komunikabideekin akordioak egiteari dagokionez, zabaltzen dituzten mezuei arreta berezia eman diezaieten, eta ijito-kulturaren elementu aberasgarriak neurri handiagoan ager ditzaten.

Ijito Herriaren Egunaren ospakizun instituzionalak (aurrerago emango dugu Ajuria Enean izandako harreraren berri), eta Bilbon izandako Jardunaldiak osatzearren, Donostian egiteko kultura-arloko hainbat jarduera proposatu zituen Batzordeak.

Baina jarduera horiek finantzatzeko gutxieneko diru kopururik bermatu ezenez, eta jarduerak ere berandu definitu zirenez, ekintza horien abiaraztea mugatua geratu da. Hortaz, goian aipatutako akordioak adosteko komunikabideetako profesionalekin lan-saio bat egiteko proposamena bertan behera geratu zen.

Dena den, esan behar dugu aukera izan zela proposamen batzuk beste hainbat bidetatik bideratzeko, hala nola “Romanipen” filma Estatu mailan aurkezteko proposamena, Donostiako Zinea eta Giza Eskubideen IV. Topaketen antolatzaileek euren gain hartuta.

- **Ijito Batzordea**

Ijito Elkartearen Batzordea ere esaten zaion Ijito Batzordeak espresuki bere eginkizuntzat hartu ditu honako hauek esleitzen dizkietenak: Kontseiluaren Osoko Bilkurak, Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako Euskal Planak edo bere funtzionamendu-araudiak; eta bereziki, honako eginkizun hau: jardunen inguruko proposamenak balioestea eta Kontseiluari proposamen horiek egitea, betiere Planean, Ijito Komunitatearekin loturiko erakundeak eta Ijito Komunitatea nabarmentzeko beste hainbat erakunde eragile arduraduntzat dituzten jardunak izanik.

2005. urtean Batzordea bi aldiz bildu da, Gasteizen. Bilera horietan honako gai nagusi hauek aztertu dira: alde batetik, Kontseiluaren eta Planaren berri emateko, Ijito Komunitateari zuzendutako informazio-kanpaina egiteko ijito-elkarteek —modu formalean edo informalean— abiarazi beharreko jardunak (3.2.2.1. jardunean aurreikusitakoari jarraiki); eta bestetik, ijito-elkarteek egindako proposamenak, EAEn Ijito Herriaren Eguna ospatzeko.

Era berean, Ijito Herriaren Estatuko Kontseilua osatzeko prozesuaren jarraipena egiteko zeregina bere gain hartu du Batzordeak 2005ean, baita EAEn ijito-elkarteek horren inguruko hausnarketa egitea ere.

- **Osasun Batzordea**

Aurrekoak ez bezala, Batzorde hau ez zen sortu Batzorde Iraunkorrek proposatuta, baizik eta Osasun Sailak egindako eskaera bati erantzunez, Planaren Osasun-eremuko jardunak zehatzago definitzea lortzeko, eta horren inguruan proposamen operatiboak egin ahal izateko.

Honako hauek osatzen dute: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari atxikitako teknikariek, Osakidetzako profesionalak, Eusko Jaurlaritzaren Droga Gaietako Zuzendaritzak, eta ijitoen eta ijitoen aldeko hainbat elkarteetako ordezkariak. 2005eko ekainean osatu zen Gasteizen, eta lau lan-taldetan banatu zen, Planean sartutako jardun-multzoekin loturiko lau azpieremuen arabera:

- 1.- Lehen mailako arreta, ospitaleko arreta eta prebentzio-programak
- 2.- Praktika diskriminatzaileak, eta sektoreko profesionalak informatzea eta sentsibilizatzea
- 3.- Droga-mendetasunei eta GIB-Hiesari arreta ematea
- 4.- Osasunerako hezkuntza-programak, emakume ijitoen egitekoari arreta berezia emanda

Lau talde horietako bakoitzak bere koordinatzailea, metodologia eta laneko egutegia zuen. Eta horren ondorioz, adibidez, 4. taldea zatitu egin zen, honako hauen inguruko beste lau azpitaldetan: haurdunaldian osasunerako hezkuntza; 0-3 urte bitartean, kontrol pediatrikoa eta arreta integrala (nutrizioa, txertoak... barnean hartuta); nutritzioa eta elikadura-ohiturak; eta osasun mentaleko arazoei aurre egitea eta baliabideetarako sarbidea normalizatzea.

Azkenik, batzordea, oro har, Gasteizen bildu zen azaroan, eremu horietako proposamenak adoste aldera; eta hala badagokie, 2006ko ekitaldian proposamen horiek ezartzeko, Osasun Sailera eta Droga Gaietako Zuzendaritzara helarazi ziren.

• **Etxebizitza Batzordea**

2005. urtean, Etxebizitza Batzordea bi aldiz bildu zen Bilbon. Lehenengo bilera otsailean izan zen, eta batzordean —abiapuntu gisa, bederen— zein alderdi lehenetsi behar ziren definitu zen; hona hemen erabakitakoa, labur-labur:

- ✓ Etxebizitza publikoak lortzeko araudia berriz aztertzea, baita Bizigunerako sarbideari buruzko informazioa eta salbuespen-aginduak ere.
- ✓ Muturreko larrialdi-egoeretarako etxebizitza-parke bat gordetzearen inguruan, Udalen eta Etxebizitza Sailaren aurreikuspenak.
- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoko Higiezinaren Jabetzako Agenteen (API) Elkargoen kode deontologikoa(k) berriz aztertzea, ijito-familiek eta ijito-elkarrekin kasu askotan salatzen dituzten diskriminazio-egoerei aurre egitearren.
- ✓ Etxebizitzarako sarbideari dagokionez, bereziki edo gehienbat ijito-familiei eragiten dieten eragozpenen diagnostiko fidagarriagoa eta zehatzagoa egiteko lanean aurrera egitea.

Arrazoiak arrazoi, azaroa bitarte ezinezkoa izan zen bigarren bilera egitea, baina bilera horretan, autonomia-eremuko indarreko araudiaren azterketan aurrera egin zen; etxebizitzaren arazoiari dagokionez, erakunde eta/edo elkarte parte-hartzaile bakoitzaren eskumen-eremua aztertu eta horren gainean hausnartu zen; Nafarroako Gizarteratzeko

Etxebizitza Programa bertatik bertara ezagutzeko saio monografiko bat egitea adostu zen, erreferentzia-eredu izan daitekeelako; eta batzordean EUDEL-en presentzia nahitaezkoa zela errepikatu zen berriz ere, gai horrekin loturiko esku-hartze orok udal-mailan dituen inplikazioak direla eta.

II. KONTSEILUAREN BESTE ZENBAIT JARDUN

Dela Osoko Bilkuran, dela batzordeetan, Kontseiluak garatutako jarduerarekin batera, ezin dugu aipatu gabe utzi zenbait jardunen gauzatzea edo abiaraztea, Planaren aurreikuspenak betetzearekin lotutakoak izanik. Hala ere, Kontseiluarekin loturiko eragile guztientzat izan duten, duten edo izango duten inplikazioa ikusita, Kontseiluari, oro har, dagozkiola esan dezakegu, gauzatzeaz arduratu den eragilea bata edo bestea izan.

- **“Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Jardunaldiak”**

Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Planak proposatzen duen lehenengo jarduera espezifikoa honako hau da: kulturarteko gizarteko askotariko nortasunei eta balio partekatuei buruz eztabaidatzeko urteko jardunaldi batzuk egitea. Jardunaldi horien bitartez, kulturarteko gizartean askotariko nortasunen eta balio partekatuen inguruko elkarrizketa kritikoa eta gizarte-arloko eztabaida zabaltzeari lagundu nahi zaio.

Planean, Jardunaldi horien gaineko erantzukizun guzti-guztia, oro har, Kontseiluaren gain eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren gain geratzen denez, Jardunaldiaren edukien eta formatuaren gidoi-proposamena egiteko ardura Kontseiluaren Kultura, Partaidetza Sozial eta Elkarbizitza Batzordeak hartu zuen, Jaurlaritzaren Sail hori partaide izanik. 2005eko martxoaren 23an izandako osoko bilkuran horren guztiaren berri eman zitzaion Kontseiluari.

Kamelamos Adiquerar Elkartearen laguntzarekin, Enseñantes con Gitanos elkarteak landutako zirriborro batetik abiatuta, Jardunaldien gidoi-proposamena egin zuen Batzordeak, honako hauek zehaztuta: Jardunaldien helburuak, hizlariak, ekitaldien tokiak eta egunak, hartzaille izan daitekeen publikoa, irudiei eta irudikapen grafikoari buruzko alderdiak, etab. Jardunaldien gai nagusia honako hau izango zela hitzartu zen: Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Plana bera, planaren helburuak eta jardunak aurkeztea eta ezagutaraztea, betiere kulturarteko gizartearen askotariko nortasunen eta balio partekatuen inguruko eztabaidari egindako ekarpenaren ikuspegitik begiratuta.

Proposamena gauzatu aurretik horren inguruko balioespenik jasotzeko Kontseiluaren osoko bilkurarik ez zegoenez aurreikusita, urriaren 6an administrazio publikoetako ordezkariari eta gizarte-erakundeetako ordezkariari posta elektronikoz bidali zitzaizkien proposamena, esan bezala, Kontseilura, oro har, helaraz zitzaizkien egoki iritzitako iradokizunak eta ekarpenak, eta bakoitzari zegokion neurrian, jarduera finantzatzen laguntzeko aukeraren balioespena.

Azkenean, 2005eko azaroaren 14an eta 15ean izan ziren Jardunaldiak, Bilboko Erakustazokan. Dokumentu honen amaieran, helburuei, publiko hartzailleari, edukien gidoiari, eta abarri buruzko informazioa jasotzen duen triptikoa erantsi dugu.

Bertaratutako publikoa. Plana aurkezteko eta ezagutarazteko helburuari jarraiki, hartzaile izan daitekeen publikoa definitzea izan zen Jardunaldien diseinuaren alderdi interesgarrienetako bat; beraz, garrantzitsua da egiaz zer publiko motak parte hartu zuen jakitea.

Jasotako datuen arabera, 199 lagunek parte hartu zuten Jardunaldietan; horietatik 124 (% 62,30) Kontseiluarekin loturiko administrazio publikoen, eta ijito-elkarteen eta ijitoen aldeko elkarteen izenean eta/edo ordezkari gisa joan ziren, eta beste 75ek (% 37,70) ez zuten inolako loturarik Kontseiluarekin.

Bertaratzea balioestea. Aurreko paragrafoan egindako parte-hartzaileen banaketari erreparatuta, zalantzan jar daiteke Plana aurkezten eta ezagutarazten laguntzeko helburua kanpora begira bete ote zen, barrura begirako aurkezpenean eta ezagutaraztean izan zuen arrakastaren aldean.

Hezkuntzarekin eta gizarte-arloko esku-hartzearekin loturiko lagunen eta erakundeen parte-hartzea izan zen nagusi. Osasunaren eremuarekin loturikoak gutxiago izan ziren, eta beste eremuetatik zetozenen presentzia oso-oso txikia izan zen: lanaren, justiziaren, kulturaren... eremutik, alegia. Laburbilduta, bertaratutako publikoaren profila bat dator horrelako Jardunaldietan ohikoa den publikoarekin, eta ez dugu lortu jende berria erakartzea.

Hala ere, aipatu behar dugu bertaratutako lagunek izan zuten eragin biderkatzailea, izan ere, Jardunaldietako edukiak transmititu eta zabaldu baitzituzten bertaratutakoek euren erakundeetan.

Halaber, jarduera horrek komunikabideetan oihartzun handia lortu zuela ere nabarmendu behar dugu, EAEn Ijito Herriaren Eguna lehenengoz ospatzearekin eta instituzionalizatzearekin batera.

Bertaratutako balioespena. Oro har, Jardunaldien balioespena ona izan zen, ia-ia oso ona, batetik hamarrera bitarteko eskalan batez beste zazpi eta zortzi puntu bitarte lortuta.

Bertaratuek honako hauekin loturiko alderdiak, batik bat, nabarmendu zituzten: *“Ijito Herria onartzearen garrantzia, euren eskubide eta betebeharrak eta guzti”, “Prestakuntza ona, antolaketa eta jasotako tratua”, “Ijitoen eta ez-ijitoen arteko partaidetza bateratua”, “Hitzaldien kalitatea eta azalpenen erraztasuna”, “Gizarte-erakundeen eta hezkuntza-arloko profesionalen partaidetza handia, baina erakundeen partaidetza txikiagoa”.*

Hobe daitezkeen alderdiei dagokienez: *“Ijito gehiagoren asistentzia”, eta “Administrazioen mahaia dinamikoagoa, astuna eta monotonoa izan zen”.*

Gastuen txostena. Jardunaldiak egiteko izan ziren gastuen atala interesgarria da, izan ere, Planean, Kontseiluari egozten baitzaio Jardunaldiak egiteko erantzukizun guztia, eta izan beharko zukeen finantziazioa eztabaida-iturri izan baita.

Gastuen zenbateko guztia 11.088, 88 € izan zen, zati berdintsuetan hainbanatuta: lokala erabiltzeko eskubidea; hizlariekin loturiko gastuak (komunikazioengatik ordaintzea,

bidaiak, hotelak, etab.); inprenta-gastuak, eta beste hainbat gastu txiki (cateringa, amaierako flamenkoa, azafatak, etab.).

- **EAEEn Ijito Herriaren Eguna instituzionalizatzea**

2005eko martxoaren 23an izandako saioan, Planaren 3.1.3.1. jardunaren inguruan —Ijito Kulturaren eta Ijito Herriaren estimazioa eta esker ona sendotzeko neurritzat, EAEEn Ijito Herriaren Eguna ezartzea eta arautzea aurreikusten duena— Ijito Batzordeak aurkeztutako proposamena onartu zen Kontseiluaren Osoko Bilkuran.

Hemendik aurrera, egun hori azaroaren 16a izatea proposatu zuen Batzordeak, eta Kontseiluaren Osoko Bilkurak onartu. Izendapena ofizialtzat hartuta, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko azaroaren 8ko saioan onartu zuen oroitzapenezko egun hori ezartzea, eta adierazpenean espresuki adierazi zuen honako hau: herri honetan ijito-komunitatearekiko elkarbizitza-ohitura luzea dagoela, Euskadiren etorkizunean eta bilakaeran haien integrazioa eta partaidetza beharrezkoa dela, Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Plana urtebete lehenago onartu zela, eta UNESCOk bultzatuta, Tolerantziaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin bat datorrela egun hori.

Ajuria Enean harrera. Eguna ospatzeko, ijito-elkarteek eta ijitoen aldeko elkarteek egindako proposamenen artean, Lehendakaritzan harrera emateko eskaera egitea aukeratu zen. Lehendakariak gogo onez hartu zuen proposamen hori, eta azaroaren 16ko goizean, honako hau esan zuen: “Ijito Herriarentzat egun berezia da, baina baita Euskal Herritar guztientzat ere”; Ajuria Enea jauregian hartu zituen EAEko Ijito Komunitatearen ordezkariak, honako hitz hauekin: “guztiok bizi garen Herri honen parte zarete”, eta “jendea pertsona moduan tratatzeko gaitasunaren arabera neurtzen da” Herri honen handitasuna.

Lehendakariak egindako harrerak eta hitzaldiaren edukiak oihartzun handia izan zuen komunikabideetan, eta aurreko atalean aipatu ditugun Jardunaldiekin batera, EAEko komunikabide garrantzitsuenek denbora eta lerro asko eskaini zizkieten bi ekitaldi horiei, baita Ijito Komunitatearen beste hainbat alderdi garrantzitsuren berri emateko ere, haien egungo egoera eta etorkizuneko aukerak azalduta. Dokumentu honen amaieran erantsi ditugu argitaratutako zenbait artikulua, informazio gisa.

- **EAEEn Ijito Herriaren egoerari buruzko azterlan**

Planaren hasierako paragrafoetan onartzen da ez dagoela nahikoa informaziorik Plana idazteko garaian, eta helburu orokorretan lehenengoan honako hau ezartzen da: “Euskal Autonomia Erkidegoko ijitoen komunitatearen egoerari eta ijitoen komunitatearekin egiten diren jardunen ondorioei buruzko ezagutza zabaltzea, alderdi bakoitzean egiten diren aurrerapenen adierazleak sortu eta hobetzea, eta zeharkako ikuspegiak txertatzea (generoarena adibidez)”.

Planaren 3.4.1.1. jardunean azterlan bat egitea aurreikusten da eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari dagokio azterlan horren erantzukizuna. Egin

beharreko izapidetze administratiboak eginda, Ikusbide Elkartea kontratatu zuen Sailak azterlan hori egiteko.

Kontseiluarekin loturiko eragile guztientzat interesgarria denez azterlanaren garapena, eta horien guztien lankidetzara beharrezkoa izanik, Sailaren asmoa zen 2005eko azaroaren 28rako deitutako Osoko Bilkuran aurkeztea azterlanaren ildo nagusiak; hala ere, Osoko Bilkura hori bertan behera geratu zenez aparteko arrazoiek eraginda —baina aurreikusitako lan-egutegian ez zuen eragin horrek—, Lurralde Historiko bakoitzean, ijito-elkarteei eta ijitoen aldeko elkarteei hitzez aurkeztea erabaki zen, eta tartean sartutako administrazio publikoei, aldiz, idatziz jakinarazi zitzaizen azterlanari ekin zitzaiola, 2006ko otsailaren 1ean igorritako jakinarazpenaren bitartez.

2005eko abenduaren 16an egin zen azterlanaren kontratazio formala, eta bederatzi hilabeteko epea aurreikusi zen; hortaz, aurtengo ekaina inguruan txostenaren zirriborroa izango dugulakoan gaude, eta irailaren amaieran edo urriaren hasieran, behin betiko testua.

Ikusbide Elkarteko ikerketa-taldeaz eta beste hainbat laguntzailez gain, kanpoko aholkularitza-batzorde bat eratu dela aipatu behar dugu, azterlanaren jarraipena egiteko eta kontraste-elementu gisa aritzeko, azterlana helburuei atxikitzen zaiela ziurtatuz. Batzorde horretan honako hauek dira partaide: Ijito Komunitateko hainbat ordezkari, EAEko ijitoen aldeko erakundeetakoak, EHUko profesionalak, eta Ijito Komunitatearekin loturiko beste hainbat lagun, lehengo edo oraingo erantzukizunen arabera.

- **ROMAIn proiektua**

Planean zehazturiko helburu orokorretako batean praktika egokiak identifikatzea aipatzen da, alor guztietara eramateko. Helburu horri jarraiki, 2005eko martxoaren 23ko Osoko Bilkuran jakinarazi zenez, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak bat egin zuen honako proposamen honekin: *Europako Batzordearen Enplegu eta Gizarte Galetako Zuzendaritza Nagusiaren VP/2004/004 deialdiaren* proposamenarekin, *Kataluniako Generalitateko Ongizate Sailaren Jardun Komunitario eta Zibikoan Zuzendaritza Nagusia* buru den *Proyecto ROMAIn Project* (“Roma herritarrek/Ijitoak European Gizarteratzeari buruzko Politikak: Gizarte-arloko esku-hartze arrakastatsua lortze aldera) izenburupean. Europako Batzordeak aldeko ebazpena eman zion proposamen horri, 2005eko irailean Kataluniako bazkideek jakinarazi zuten.

Honako hauek ere parte hartzen dute proiektuan: Andaluziako autonomiako administrazioek, Kataluniako hainbat udalek, Bartzelonako Unibertsitateak, Errumaniako Roma herritarrentzako Agentzia Nazionalak, eta Europa mailako Ijito Komunitatearekin loturiko hainbat erakundek (egoitza Belgikan duen ERIO, European Roma Information Office, eta Finlandiako IRWN, International Roma Women Network).

Ijito-herria European gizarteratzea lortu nahi du proiektuak, esperientzia arrakastatsuetan oinarrituta, eta nazioz gaindiko lankidetzaren bitartez, gizarteratzeko politiken diseinuan eta aplikazioan berrikuntzak sartzea. Horretarako, European ijito-herriarekin politikak (Europako politikak eta hainbat administrazioen esku-hartzeak) aztertze eta

ezagutarazteko asmoa du; ijito-herriarekin arrakasta izan duten esperientziak, eta gizartearen eta irakaskuntzaren eremutik gizarte kulturantzera esku hartzeko metodologia egokiak identifikatzeko; hainbat gizarte-eremutatik ijito-herria barne hartzeko politiken inguruko esperientzia elkartrukatzeko eta eztabaidatzeko; eta lan horren guztiaren emaitzak, produktuak eta prozesuak ezagutarazteko.

2005eko urritik 2007ko irailera bitarte luzatzen da proiektuaren egutegia. Gaur egun, proiektua martxan dago, irailean hainbat lan-bilera egin ziren estatuko bazkideekin, eta azaroan, aldiz, proiektuaren bazkide guztiekin. Gaur egun, jarduera nagusiak honako hauen ingurukoak dira: praktika egokitzat identifika daitezkeen esperientziak biltzea eta aztertzea, eta Aholkularitza Kontseilua osatzea, hain zuzen ere, proiektuaren bitartez lortutako emaitzek gizarte-onura dutela eta ijito-herriaren errealitatea aldatzeko lagungarriak direla bermatuko duen Kontseilua.

- **Koheslan Ikerketa Taldea/Proiektua (EHU)**

Duela bi eta hiru urte bitarte, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Soziologia 2 Saileko ikerketa talde baten ekimenez, hainbat diziplina akademiko eta esperientzia profesionaleko pertsonak osatutako Koheslan Kohesio Sozialerako Ikerketa *Taldea* sortu zen EHU-n, desabantaila-egoeran dauden gutxiengoaren egoera hobetzen laguntzeko asmoz.

Ikerketa komunikatiboaren proiektua. *Koheslan* akronimoa bera baliagarria da taldearen lehenengotako jardun bat identifikatzeko: *Euskal ijito eta etorkinak nerabezaroan ikerketa-proiektua*. Ikerlana garatzeko, Kontseiluaren lankidetzak eskatu zuen taldeak, Ijito Herriaren inguruko gaietan aholkularitza egiteko, eta Manuel Vizarraga izendatu zuten ijito-elkarteek eginkizun hori betetzeko.

Ijito-komunitatearen eta etorkinen kide konprometituek parte hartu dute proiektuan, hezkuntza-arloan, pedagogian eta gazte-enpleguan adituak diren eragileek, eta azkenik, baita unibertsitateko irakasleek eta ikertzaileek ere, EAEko zenbait ikastetxerekin batera.

Manuel Vizarragaren bitartez, Kontseiluarekin izandako lankidetzak honako hauetan gauzatu da: proiektuaren testuak gainbegiratzea, eztabaidatzea eta zuzentzea, batik bat, Euskadin ijito-herriaren bizitzaren berri ematen duten testuak eta neska-mutil ijitoekin elkarrizketatzeko gidoiak; egoki irizitako kasuetan, senitartekoekin bitartekotza-lanak egitea ere bai.

Argitalpena. Berriki, *Euskal ijito eta etorkinak nerabezaroan ikerketa-proiektuaren* lehenengo argitalpena kaleratu da, honako hauek aipatuta: proiektuaren oinarriak, gure gizartean ijitoen eta etorkinen mundu komunitarioaren atarikoak, Proiektuan parte hartzen duten Zentroen ezaugarrien aurkezpena, eta bukatzeko, ikerketaren hurrengo faseen aurrerapena.

Kontseiluaren eta Planaren helburuekin bat datorrenez, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak argitaratzen lagundu du.

III. BESTELAKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA

- **Ijito Herriaren Estatuko Kontseilua**

2005eko abuztuaren 26an, 891/2005 Errege Dekretua argitaratu zen BOEn; horren bitartez, *Ijito Herriaren Estatuko Kontseilua* sortu eta arautzen da, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioari atxikita, eta politika publikoetan, orokorretan eta espezifikoetan partaidetzako eta aholkularitzako taldeko organotzat definitua, betiere Espainian ijito-herritarren erabateko garapenerako izanik politika horiek.

Espero zitekeenez, 891/2005 Dekretuan aurreikusten da Kontseilu horren eginkizunetako bat dela antzeko beste kontseiluekin eta erakundeekin —nazioartekoak, autonomiakoak, tokikoak edo antzekoak izanik— lankidetzan aritzea eta haiei laguntzea, giza eskubideen defentsan badihardute. Helburu berak dituztenez, formalki osatutakoan enkargu hori bete beharko da, Euskadiko eta Estatuko bi Kontseiluen artean lankidetzaharreman egokia izanda.

Nolanahi ere, Estatuko Kontseilua arautzen duen Dekretuaren arabera, guztira 20 kidek parte hartuko dute ijito-elkarteen mugimenduaren ordezkari. Estatuko Kontseilu horretan nork eta zer erakunderen ordezkariatzat parte hartuko duen zehazteko, hautaketa-prozesu bati ekin dio Ministerioak, azaroaren 21eko TAS/3795/2005 Aginduari jarraiki araututa, baina Memoria hau idazteko garaian prozesua ez zegoen amaitua. Agindu horretan balioespenerako hainbat baldintza eta irizpide ezartzen dira, hala nola autonomia-eremuan ijito-herritarren Kontseilu edo partaidetzako organoren bateko kide izatea. Hori horrela izanik, Euskadiko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluko kide diren elkarteetako bik —Kalé dor Kayikó elkarteak eta Iniciativa Gitana elkarteak— hautaketa-prozesu horretan parte hartzeko interesa agertu dute, eta dagokien egiaztatzea egin zaie.

IV. KONTSEILUAREN IDAZKARITZA TEKNIKOA

Idazkaritza Teknikoaren egitekoak honako hauek dira: Kontseiluaren Osoko Bilkurak eta Batzordeak dinamizatzea eta horietan laguntzea, haien funtzionamendua sendotzearen eta helburuak lortzera bideratutako lana erraztearen; Kontseiluari laguntzea Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiten; eta EAEn eta EAetik kanpo, ijito-errealitateari buruzko informazioa kudeatzeko sistema bat abiaraztea. Idazkaritza, beraz, Kontseiluaren zerbitzura dagoen tresna da, eta Kontseiluak berak esleitutako funtzioak ditu, Kontseiluari bere helburuen lorpena errazteko eta ahalbidetzeko.

- **Kontseiluari laguntzea.**

Aipatu ditugun egiteko horietatik lehenengoari dagokionez, Kontseiluaren —bai Osoko Bilkuraren, bai Batzordeen— lanarekin loturiko eginkizun iraunkorrak hartu ditu bere gain Idazkaritzak, baita Osoko Bilkuraren nahiz Batzordeen deialdiarekin eta gai-ordenarekin loturiko alderdiak ere, parte-hartzaile guztien ekarpenak bilduta, aktak idatzita, bileretarako lokalak kudeatuta, lanerako dokumentuak osatu edo ekarrita, etab.

Kontseiluaren eta barne-organoen Funtzionamendu Araudia igorri dute Idazkaritzatik Osoko Bilkurara, baina azkenean ez dute onartzeko aurkeztu, ziurrenik denbora-arazoengatik.

Lan Batzordeetako (Kultura, Partaidetza Soziala eta Elkarbizitza Batzordea, Ijito Batzordea, Osasun Batzordea eta Etxebizitza Batzordea) kideekin etengabeko harremanari ekin edo eutsi zaio.

Gizarte Gaietako Saila eta Gizarte Ongizateko Zuzendaritza jakinaren gainean izan ditu beti Idazkaritzak, aurreko gaiei dagokienez, horien zuzendaritzapean jarduten baitu.

- **Planaren jarraipena**

Idazkaritzari ezarritako bigarren helburuaren arabera, Ijito Herriaren Planaren barnean hartutako jardunen garapen- eta gauzatze-mailari, eta helburuen betetze-mailari buruzko txostenak izan behar ditu Kontseiluak, era horretan Planaren jarraipenean eta ebaluazioan parte hartu, Planaren ildo estrategikoen eta helburuen garapenari eta gauzatzeari buruzko txostenak eta proposamenak egin, eta, bere garaian, Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkeztuko dion Plan berri bat landu ahal izateko.

Hori lortzeko, 2005eko Jardunen Urteko Programa osatzeko beharrezkoa den informazioa biltzeko formularioak diseinatu ditu Idazkaritzak, baita urte horretako Jarraipen Txostena eta 2006ko Jardunen Urteko Programa osatzeko datuak biltzeko formularioak ere.

2005eko lehenengo hiruhilekoan eta urte amaieran, batik bat, honako mintzakide operatibo hauek izan dira informazio-iturri planaren jarraipena egiteko: Jaurlaritzaren Sail bakoitzean, Planaren garapenean tartean sartutako erakunde bakoitzean, eta Ijito Komunitatearekin loturiko erakunde bakoitzean aldeztuak identifikatutakoak.

Horren guztiaren osagarri, Idazkaritzak datu-base bat sortu du eragileek emandako informaziotik jasotako datuak antolatzeko, lantzeko eta ustiatzeko.

Bukatzeko, aurreko urratsetatik ondoriozta daitekeenez, Plana onartzen duen Eusko Jaurlaritzaren akordioan aurreikusten diren jarraipeneko eta jardunen urteko programazioko txostenak egin ditu Idazkaritzak.

2005. ekitaldiko Jardunen Urteko Programari dagokionez, aldez aurreko izapideak eginda, 2005eko uztailaren 12an onartu zen, Jaurlaritzaren Kontseiluan.

- **Informazioa kudeatzea**

Idazkaritzaren hirugarren egitekoa honako hau da: Kontseiluko kideek eta, oro har, ijito herriaren sustapenean inplikaturako eragileek Euskal Autonomia Erkidegoan zein Estatuaren gainerakoan eta Europan garatutako sustapen-neurriei eta esperientzia esanguratsuei buruzko informazio eguneratua izatea.

Hari berari jarraiki, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren web-orriaren bitartez informazioa kudeatzeko proposamena egin da, baina 2005. urtearen amaieran ez zegoen operatibo oraindik; sistema horrekin, ijito-herriari dagokionez, Administrazio Publikoetako, ijito-elkarteetako eta ijitoen aldeko elkarteetako, eta beste hainbat gizarte-eragileren araudiaren, programen eta jardueren inguruko informazioa dinamizatu ahal izango da, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, baita Estatuaren gainerakoan eta Europan ere.

Web-orrian sortutako gunea abiarazi bitartean, prozedura horren ordez, informazio interesgarria zuzenean bidaltzen zaie eragileei, dela posta elektronikoko bidez, dela posta arruntaren bidez.

Halaber, Idazkaritzak badu direktorio bat Kontseiluarekin eta/edo Planarekin, nahiz, oro har, ijito-komunitatearekin loturiko argitalpenak, dokumentazioa, etab. bidaltzeko, eta direktorio hori erreferentzia izan da Kontseiluak berak sortutako dokumentuak (Planaren aleak, paperean edo CDan) banatzeko, baita Kontseiluz kanpoko iturriek sortutakoak (EHUk parte hartu duen ikerketetakoaren baten ondorioz egindako argitalpenen bat) banatzeko ere.

- **Beste zenbait ekintza**

Helburu komunak izanik, Kontseiluko kide ez diren edo Planaren garapenarekin zuzeneko loturarik ez duten eragileekin hitz egiteko aukera erraztu die Idazkaritzak Ijito Komunitatearekin loturiko erakundeei. Esate baterako, Arartekoaren erakundearekiko lankidetzak, laneko bilera bat egite aldera.

Idazkaritzak hartu du bere gain honako lan hau ere: Ijito Komunitatearen sustapenari eta partaidetzari arreta berezia ematen zaion foroetara edo eremuetara gerturatzea Kontseilua eta Plana. Adibidez, Sekretariadoko Gitano Fundazioaren ekimenez, 2005eko

azaroan Madrilan izan zen *Por la inclusión social de los gitanos y travellers (Ijitoen eta bidaiarien gizarteratzearen alde)* topaketetan Kontseilua eta Plana aurkeztea.

Era berean, ijito-elkarteek besteren ekimenetan ere parte hartzeko aukera izan dezaten sustatzeko ardura hartu du Idazkaritzak, dela Ijito Kultura ezagutarazteko (Eusko Jaurlaritzaren Inmigrazio Zuzendaritzak sustatutako *Kulturartekotasunaren III. Astearen* barruan, Bilbon irailean izan zen *Kulturen Feria*), dela ijito-elkarteen lana ezagutarazteko (Abenduan Bilbon izandako *Bolunta'05 Boluntarioria eta Elkarreentzako Biltzarra*).

Salbuespen gisa, kulturartekotasunaren inguruko hainbat ekitalditan parte hartu du Idazkaritzak berak, *ijitoen gaiak* presentzia izan dezan bermatzeko, aintzat hartu beharreko alderditzat; horren adibide dugu honako tailer hau: *Bazterketari erantzuten: immigrazio-politikak, kulturartekotasuna eta immigrazioa*, Soziologia Juridikoko Nazioarteko Institutuak Oñatin antolatua, apirilean.

Bukatzeko, aldizka, Ijito Komunitatearekin loturiko elkarreentzat interesgarria izan daitekeen informazioa helarazteko bide ere izan da Idazkaritza, gizarte-ekimeneko elkarreentzako dagokionez; esate baterako, *Bizkaiko Gizarte Esku-hartzearen Sektorearen* lehenengo *Hitzarmen Kolektiboari* buruzko informazioa, eta sektoreko erakunde nagusiak biltzen dituen erakundeari (Gizardatz) buruzkoa.

- **2006rako Hobetzeko helburuak**

Azaldutako zeregin nagusi horiei eutsita, honako ildo hauetako hiru eremuetan aurrera egiteko asmoa du Idazkaritzak:

Kontseilua. Kontseiluarekin loturiko eragileen arreta hobetzea, haienganako gertutasunari dagokionez, haien laguntza teknikoaren eskaeren berri handiagoa izatearren; eta Kontseiluaren eta horren organoen zereginarekin loturiko eginkizunak betetzeko ardurari dagokionez (deialdiak, aktak, etab.). Udal-eremuan sortutako eskaerei eta proposamenei emandako arreta areagotzea. Ijito Komunitatearekin loturiko erakundeei dagokionez, informazio-zirkulua handitzea.

Plana. Jarraipena eta planifikazioa egiteko tresnak eta metodologiak definitzeko prozesuetan Kontseilua txertatzea, ziurrenik Batzorde Iraunkorraren bitartez. Kontseiluaren lan-agendan sartzea Planaren ebaluazio-aurreikuspena.

Informazioa. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren web-orrian gune propioa abiaraztea, ijito-herriari dagokionez, Administrazio Publikoetako, ijito-elkarreentzako eta ijitoen aldeko elkarreentzako, eta beste hainbat gizarte-eragileren araudiaren, programen eta jardueren inguruko informazioa dinamizatzeke, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, baita Estatuko gainerakoan eta European ere.